



GUZ TIONI TZAKO PLA NA

VISIT-
TURISMO PLANA
DONOSTIA
2017-2021
BIZI

"DONOSTIARRON BIZI-
KALITATEA DA ABIAPUNTUA"

BIDAIATZEKO MODU BERRIEN AURREAN, ERANTZUN BERRIAK

Gaurko Donostia ezin daiteke ulertu, turismoaren ekarpenari begiratzen ez badiogu. **XIX. mendetik hartzen ditugu bisitariak**, eta beti egin izan dugu harro eta atsegin handiz. Turismoari esker, **hiri bizia dugu gaur, hiri handien mailako azpiegitura eta kultur-eskaintza dituena.**

Hala ere, azken urteotan, **mundu mailako turismoak gora egin du, eta gure hiriak arrakasta eduki du** helmuga gustukoenen artean. Horren ondorioz, hiriko gune batzuen gaineko presioa hazi egin da, ohituta geundena baino areago.

Hori dela eta, Donostiarako nahi dugun turismo-eredua birpentsatzeko unea iritsi da. Eta herritarrak proiektuaren erdigunean jarrita egin behar da hori. **Benetako hiria, biztaleentzako bizi-kalitatea duena, bisitarientzat ere erakargarria izango da.**

Planteamendu horren isla da 2017-2021erako VISIT-BIZI 2017-2021erako Turismo Gida - Plana. Urtebete pasatxoan, sektoreko profesionalak, estamentu publikoak eta herritarrak elkarrekin aritu gara lanean, **turismo berri jasangarriagoa, orekatuagoa, benetakoagoa eta kalitate handiagokoa** sortzea ahalbidetuko diguten bideak ezartzeko xedez.

TURISMO ATSEGINAGOA GUZTIONTZAT.





BENETAKO HIRIA,
BIZTALEENTZAKO
BIZI-KALITATEA DUENA,
BISITARIENTZAT ERE
ERAKARGARRIA IZANGO DA.



TURISMOARI ESKER,
HIRI BIZIA DUGU GAUR, HIRI
HANDIEN MAILAKO AZPIEGITURA
ETA KULTUR ESKAINTZA DITUENA.

DAGOENeko 325 GARA DONOSTIA TURISMOA & CONVENTION BUREAUko
TOKIKO ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK. EGUNERO EGITEN DUGU LAN GURE
HIRIKO TURISMOAREN EGUNGO ETA ETORKIZUNeko ARRAKASTAREN ALDE.

01

TURISMOA MUNDU MAILAKO JOERA GELDIEZINA DA. UKATU EGIN DEZAKEGU, EDO GEURE BURUA PRESTATU.

2016an *

1,3 MILIOI OSTATU GAU

%7

2015ean baino **% 7 bisitari gehiago**



%54,7

atzerritarren ostatu-gauak dira



%18,3ko

hazkundera neguan



Sendotzea

Nazioarteko erreferentzia gara
kalitateko turismoan



* *Datu historikoa:*
1907an ere, **1,3 milioi ostatu-gau**
egiten ziren hirian.

NONDIK GATZ?

Donostia Turismoa & Convention Bureauak funtsezko bi erronka markatu zituen 2012-2016rako Gida-Planean: **urtarokotasuna haustea** (behe-denboraldian bisitariak erakartzea) eta **nazioartekotzea**.

Arrakasta handiz lortu dira xedeak.

Zorionak! Guztion artean, gure abegi onari eta gauzak egiteko dugun moduari esker, helburuak lortu ditugu.

Alabaina, gauza guztiek dauzkate abantailak eta desabantailak. Adibidez, eguna gure artean igarotzen duten txangolarien kopurua igo egin da. Horrek presioa gainratzen die hiriko gune jakin batzuei, baina presio hori egokitzeko garaiz gabiltza.

GAUR EGUN, GUZTIOK GARA TURISTAK.

Online ekonomiaren eredu berrien, adinekoren bizi-kalitatea areagotu izanaren eta bidaien demokratizazioaren ondorioz, lekualdaketa-kopurua gora egiten ari da, urtetik urtera, mundu osoan.

2016an, 1.200 milioi aisialdi-bidaia gora zenbatu ziren munduan, eta gure hiria ez dago joera horretatik kanpo.

Gainera, bidaia mota aldatu egin da, bai ostatuak eta garraioak kontratatzeke modu berriak agertu direlako, bai gero eta gehiago gustatzen zaigulako hiritara bidaiatzea, bai tokiko esperientziak partekatu nahi ditugulako.

Horregatik guztiarengatik, gure hirian, turismoaren hazkunderako joera sahiestezina dirudi. Bada, errealitate hori nola kudeatu pentsatu behar dugu, hiri nahiz hiritarren komunitate helburuekin bat etor dadin.

2016



1.200.000.000
aisialdi-bidaia munduan

GURE HIRIRAKO AUKERA PAREGABEA.

Turismo-sektorea da Donostiari ekarpen handiena egiten dion eremuetako bat. Jarduera hori hazteak, beraz, garatzeko eta herritar guztien ongizaterako aukera paregabea ematen digu. Eta ezin diezaiokegu ihes egiten utzi.


Izan ere, **enplegurako eta ekintzailetzarako aukera** gehiago sortzen lagunduko digu, eta, biltzar-turismoaren bidez, gure **industria-, enpresa- eta I+G+b kontzeptuaren ehundura dinamizatzen** lagunduko digu, talentua eta berrikuntza erakarriz horrela.

Gainera, euskal kultura, hizkuntza eta nortasuna mundu osora zabaltzen ere lagunduko digu, irekitasun handiagoa eta beste errealitate eta **estimulu kultural** batzuekiko harreman handiagoa ematearekin batera.

Deslokalizatu ezin daitekeen eta hainbat sektore biltzen dituen jarduera

Turismoa tokiko industria da, eta bisitarien gastuak **tokiko ekoizpen osoa ukitzen du**. Turismoa ostalaritzarekin eta ostatuarekin lotzen da gehienbat; Donostian, ordea, **tokiko ekintzaileak eta enpresa askotariko sektoreetakoak dira**, eta turismoak eragin handia du horien gainean, bai zuzenean, bai zeharka. Besteren artean, hauek aipa ditzakegu: museoak, kultur ekipamenduak, merkataritza, gida turistikoak, ikerketa-zentroak/ospitaleak/biltzar-turismoari lotutako hainbat sektoretako enpresak, bisitariari zerbitzu ematen dieten enpresa txikiak, beren produktuak jatetxeei saltzen dizkieten nekazariak/abeltzainak/arrantzaleak eta abar.

HAU DAKAR GURE HIRIKO TURISMOAK:



%13,4

HIRIKO **BPG**

2015ean
1.000 MILIOI€

2016an
15.000 EMPLEGU +
■■■■■■■■ SORTU ZITUEN

TURISTAREN
EGUNEKO
EKARENA 123,60€/EG.

%95 DONOSTIAN, TURISMO SEKTOREAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ENPRESEN % 95 TOKIKO ETE-ak DIRA *

* Donostia Turismoa & Convention Bureau ekimenari lotutako 323 enpresetatik eratorritako ehunekoak.

02

ZER NOLAKO TURISMO EREDUA NAHI DUGU DONOSTIARAKO?

Errealitate berri honen premia jorratu behar ditu plan berriak, eta, beraz, aldaketa egin beharko du, lortu nahi dugunaren norabidean.

Bisitarien kopuruak lehentasuna izateari uzten dio, kalitaterantz jo behar baita gehiago. Baina ez dago kalitateko turismo-eredurik, horrekin bat egiten duen helmugarik gabe. Helmuga horretan, espazio publikoak hobeto ordenatuta eta erregulatuta egon behar du, eta hiriaren nortasuna eta izaera indartu behar dira.

Helmuga horretan, donostiarren **bizi-kalitateak** izan behar du lehentasunezko publikoari proiektatuko diogun erakargarritasunaren oinarria, Horrela, nazioartean **goi-mailako hiri-helmuga gisa finkatuko gara.**

Eta funtsezko lau ardatz hauen arabera lortuko dugu:

01

JASANGARRITASUNA

SOZIALA.
INGURUMENARI DAGOKIONA.
EKONOMIKOA.

|

02

OREKA HAUEN ARTEAN...

HIRITARRAK.
BISITARIAK.
ENPRESAK.

|

03

KALITATEA


BIZITZARENA.
BISITENA.
HELMUGARENA.

|

04

BENETAKOTASUNA

IDENTITATEA ETA KULTURA.
EUSKARA ETA OHITURAK.
BEREZITASUNA.



BIDE BAT HAUTATU DUGU

—

hau izango gara:

- ▶ Bisitaria lurralde, ekonomia eta gizarte donostiarrean modu orekatuan integratzea erraztuko duen helmuga izango gara.
- ▶ Gure bisitari eta hiritarrei eskaintzen diegun balio-proposamena eutsi eta hobetzen duen helmuga.
- ▶ Ostatu-eskaintzarako arrazoizko bilakaera-eredua duena.
- ▶ Auzoetan eta metropoliko lurraldean baliabide turistiko berriak eskainiko dituen helmuga.
- ▶ Kalitateko hiri-turismorako erreferentzia European.
- ▶ Eta, bertan, hiriaren identitatea eta izaera zainduko dira; bai eta gure sinbologia eta ezaugarritzen gaituzten irudiak eta sentsazioak ere

ZEIN TURISMO INTERESATZEN ZAIGU?

—

BAI

- ▶ **Bizipen-bilatzaileak.**
Bizipen-bilatzaileak. Helmuga sakon ezagutu, bere esentzia ulertu eta bertako biztanleen bizikide izan nahi duten bisitariak.
- ▶ **Gure bisitari tradizionalak.**
Gurekin eta Donostiarekin bat egiten dutenak, tokiko esperientzia bilatuz. Espainiatik, Frantziatik, Erresuma Batutik, Beneluxetik, Alemaniatik, Eskandinaviatik, Estatu Batuetatik, Kanadatik, Japoniatik edo Australiatik datozen bisitariak.
- ▶ **Errentagarritasun handiko turismoa.**
Bisita baliotsuak, hiriari presio txikiagoa eragiten dioten turismo-jarduera motak dira: biltzar turismoa edo kirol-ekitaldiei dagokiena, turismo gastronomikoa, turismo kultural eta sortzailea, hiriko ihesaldiak, premium turismoa..

EZ

- ▶ **Turismo masiboa.**
Itsas-bidaia handiak, festa-turismoa, mozkorraldia, eguzkia eta hondartza bilatzen dituen.
- ▶ **Egokitzen ez diren bidaiariak**
Beren ohituretara egokitzea eskatzen diguten eta tokiko esperientzia partekatu nahiz bertara sartu nahi ez duten merkatuak.
- ▶ **Talde handi eta igarokorrak.**
Apenas harremanik eduki gabe igaro eta hiria kolapsatu dezaketenak.

03

NOLA LORTUKO DUGU?



01

OSTATUA ERREGULATUZ. GUZTIAK EZ DU BALIO

Batez ere, gune jakin batzuetan areagotu dira alokairu turistikorako pisuak, eta, gune horietan, ohiko auzotarrek aurrez aurre dauzkate bertatik alde egitera bultza ditzaketen prozesuak.

Gure hiri-ereduaren garapena gizarte-jasangarritasunak gida dezan, modu eraginkorrean arautu behar da jarduera hori, ez diezaien herritarrei eragin.

Alokairu turistikorako pisuei buruzko ordenantza bat abiarazi da, eta horrek:

- Argi eta garbi mugatuko du non eskain daitezkeen horrelako alokairuak eta zein betekizun bete beharko dituzten.
- Kontrol- eta ikuskaritza-talde bat zehaztuko du, araua betetzen ez duten pisuak aurki ditzan.
- Araua betetzen ez denean, zigor ekonomikoak ezarriko ditu.

Alokairuak kudeatzeko onlineko plataforma nagusiekin harremanetan egoteko esparrua sortzea sustatuko du.

02

BISITAK URTEAN ETA LURRALDEAN ZEHAR BANATUZ

Donostiarrek, bisitariekin eta eguneko txangolariekin partekatzen ditugu gure kaleak. Pertsonak pilotzea eragin dezake horrek; une eta toki jakinetan, bereziki.

Hiriaren harrera-gaitasuna mugatua denez, jendetza hori hobeto banantzea lortu behar dugu, bai denborari dagokionez, bai lurraldeari dagokionez.

Hori lortzeko, ekintza hauek egingo ditugu:

- Turismoa **behe-denboraldian** sustatzea, sustapen-kanpaineekin, jarduera- edo bizipen-proposamenekin, biltzarrekin...
- Erakargune berriak** sustatzea, hiriko eta lurraldeko beste eremu batzuk dinamizatzeko.
- Bisitariak **hartzeko gune berri bat** irekitzea, gaurkoa baino handiagoa eta modernoagoa, metropoliko proposamen guztien erakusleihoa izan dadin.
- Behatoki** bat martxan jartzea, Donostiako zama-mugak eta turismoaren ondorioak aztertzeko, datuak denbora errealean monitorizatu.

HIRIAN MUGITZEKO MODUA HOBETUZ

Hirian mugitzen garenean, bisitariez eta bertakoez gain, hemen lan egiten duten pertsonekin, hornikuntza- edo zerbitzu-banatzailleekin eta abarrekin partekatzen ditugu bideak.

Kontzentrazio-uneetan sor daitezkeen tentsioei erantzuteko gai izan behar du mugikortasun-sistemak.

Horrela, jarduera zehatzak abiaraziko ditugu:

- ◀ **Autobusak** taldeekin **erregulatzea**.
- ◀ Besteren artean, hiriko **mugikortasunari eta aparkamenduari**, aparkalekuen okupazioari eta disuasio-aparkalekuekiko konexioari buruz denbora errealean ematen den informazioa hobetzea.
- ◀ **Espazio publikoa erabiltzeko erabilera-plana** bultzatzea.
- ◀ Garraioko **txartel turistikoak** indartzea.

PARTE ZAHARRA BABESTUZ

Donostian, Parte Zaharrari eragin dio gehien giza presioak.

Ezinbestekoa da hiriaren nortasunean hain garrantzitsua den gune sinbolikoan bizi-kalitatea eta aniztasuna bermatzea bertako jarduera sozial, kultural eta ekonomikoetan.

Parte Zaharrerako Plan Integrala sortuko da, eta hau ekarriko du horrek:

- ◀ Parte Zaharra **eremu itoa** delako adierazpena. Ezingo dira ostalaritza- edo ostatu-jarduera berriak abiarazi, edozein motatakoak izanda ere.
- ◀ **Etxebizitza turistiko**en gaineko kontrol zorrotza eremuan.
- ◀ **Espazio publikoa** kontrolatzeko ordenantza, ostalaritzari eta merkataritzari begirakoa.
- ◀ Espazio publikoa erabiltzeko plan berria, Parte Zaharrean ekitaldiak antolatzeko.
- ◀ Publizitatea eta errotulazioak **erregulatzea**.
- ◀ Auzoko biztanleei zuzendutako **zerbitzu publikoak** irmo indartzea.

NOLA LORTUKO DUGU?

05

IDENTITATE PROPIOARI, BENETAKOTASUNARI EUTSIZ.

Egunetik egunera, gero eta gehiago partekatzen ditugu markak, joerak, produktu kulturalak eta modak. Munduko hainbat tokitako pertsonok elkarren antz handiagoa daukagu. Baita hiriek elkarren antz handiagoa ere.

Gure esentziak; hots, gure izaera ezberdinak definitzen gaitu, eta zaindu egin nahi dugu hori... Era berean, horrexek egiten du hiri hau hain erakargarria bisitan datozenentzat.

Gure hizkuntzak eta kulturak, gure berezitasunek eta gure hirigintzak, gure arkitekturak eta hiri-diseinuak... gure balioaren zati handia osatzen dute, eta hutsaltzetik eta estandarizaziotik babestu behar ditugu horiek.

Hauek dira proposamenak:

- ◀ **Euskal kultura, euskara, historia eta ohitura donostiarrak**, bai eta hiria berezi egiten duen oro ere, sustatzeko ekintzak abiatzea.
- ◀ **Ostalaritza eta merkataritza bereziei** laguntzeko neurriak sortzea.
- ◀ Kutsadura bisuala prebenituta, **hiri-paisaiaren kalitateari** eusteko araudia.
- ◀ Guztion espazioan erabil daitezkeen **elementu komertzialak definitzea eta kontrolatzea.**

06

SEKTORE ESTRATEGIKOEI ZUZENDUZ

Donostiarren bizi-kalitatea zaintzeko, garrantzitsua da zer-nolako jendea erakarri nahi dugun eta zein helmuga-jarreraren alde egin nahi dugun erabakitzea. Ez dugu gure hiria kaltetu dezakeen masa-turismorik nahi. Eta, hori dela eta, bost ardatz estrategiko hauek landuko ditugu:

- ◀ **Biltzar-turismoa eta kirol-ekitaldien turismoa**
- ◀ **Turismo kultural eta sortzailea**
- ◀ **Turismo gastronomikoa**
- ◀ **Premium turismoa**
- ◀ **City break turismoa edo ihesaldi-turismoa**

Ezagutza eta berrikuntza sustatuz:

Biltzar- edo bilera-turismoa aukera ona da ezagutza partekatzen duten eta gure enpresei balio erantsia ematen dieten profesionalak erakartzeko. Donostia enpresaren arloko berrikuntza- eta lehiakortasun-hiri bezala posizionatzen du, lurraldeko industria, enpresa eta I+G+i ehundura dinamizatzen du, eta, gainera, behe-denboraldian balio handia eransten du termino kuantitatiboetan begiratuta.

GURE ESENTZIAK, GURE IZAERA
EZBERDINAK DEFINITZEN GAITU,
ETA ZAINDU EGIN NAHI DUGU HORI...

07

JASANGARRITASUNA SUSTATUZ

–

Aipatu diren ekintzez gain, neurri espezifiko osagarriak abiaraziko ditugu, eremu guztietan jasangarria izango den turismo-eredua bultzatzeari begira:

- ▶ **Turismo arduratsuaren** gainean kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak egitea
- ▶ **Tokiko enpresak eta produktuak** sustatzea
- ▶ **Ingurumen-inpaktua** murrizteko neurriei laguntzea
- ▶ Turismo-sektorea koordinatzea, gizarte-ekintzak eta **elkartasun-kanpainak** sustatzeko

08

BISITARI ETA TXANGOLARIENTZAKO TASA BERRI BAT SORTUZ

–

Turismo-baliabideen (hondartzak, pasealekuak, monumentuak, museoak...) mantentze-lanek eta kudeaketak kostu bat dute hiriarentzat.

Neurri horrekin, helburua da bisitariak eta txangolariak kostu horren parte bat gain hartzea.



04

NOLA GORPUZTU DA PLANA?



PERTSONA ASKOREN TOPALEKUA

2017-2021erako Turismo Gida-Plana sortzeko, beren esperientzia, ezagutzak eta ikuspegiak helarazi dituzten pertsona eta erakunde ugariaren lana behar izan da.

Urtebetetik gorako lana izan da, oso **teknikoa**, eta, zurekin partekatu ahal izan baino lehen, hainbat urratsetan garatu da.

Modu batera edo bestera, **adituek, sektoreko profesionalak, alderdi politiko guztiek, herritarrek eta Donostia Turismoa & Convention Bureauko** enpresek hartu dute parte (300 enpresa bazkideetik gora biltzen ditu Donostia Turismoa & Convention Bureauk, tokiko ETEak gehienak).

PLAN OSOA EZAGUTU NAHI DUZU?

PLANA ZUREA DA. Donostiar guztiona da. Hori dela-eta, dokumentu osoa begiratu nahi baduzu, hemen aurki dezakezu:

www.donostiaturismoa.com

GUZTION AHALEGINA DA, ETA DOKUMENTU HONETAN GAUZATZEN DA. HIRITARRAK ESTRATEGIA TURISTIKOAREN ERDIGUNERA ITZULARAZTEN DITUEN EKINTZA PLANA DA. TURISMO BERRI BATERAKO OREKA BERRIA ESKAINTZEN DIGUNA.

BIZI ETA BISITA KALITATEA